



BOOKTEGI

gauzak eta erlikiak

LIZAR BEGOÑA



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

LIZAR BEGOÑA

gauzak eta erlikiak

E
l
k
a
r
r
I r a k u r r i z

1946ko abenduak 30

Domin Aldazabali amak topatu zion lana. Bera Lemoizko eskolan ibili zen hamabi urtera arte, Justa astoz joaten zen Plentziara etxean egindako irina saltzera. Zubia pasatuta lehenengo etxean ezagutu zuen Isabel Gurtubay eta haren senarra, Fernando. Udatiarrek ziren eta Bilbon zuten etxerako neskamea behar zuten. Alaba bidali zuen bertara. Erdara ikas zezan, lanean has zedin.

Antxo buruak eta tripa garbitzen ibilitakoa zen Domin Armintzako kofradian, baina Bilbora joaten hasi eta utzi zituen portuko lanak.

Lehenengo lanegunean amak lagundu zion astoz Plentziako tren geltokira.

- Buruko orratz baltz bat topaten badozu bere, ugazabari emon, berana da-ta. Ez ostu ezer, orratz bat bez, gero!

Beteta zihoan trena goizeko bostetan. Jende helduaren artean, Santurtziko fabriketan edo Bilboko portuan peoi lanetan hasi ziren lagun batzuekin elkartu zen geltokian. Eskola utzitakoak denak. Horien artean Jose Miguel Garaizar eta Gloria Learrarekin. Eurekin egiten zuen egunero joan-etorria. Gloria Neguriko etxe batean zebilen neskame. Jose Miguelek, aldiz, Ripako kaian lehorreratzen ziren itsasontziak deskargatzen laguntzen zuen.

Domin Bilboko Ensantxean hasiko zen lanean. Baina etxean ez zuten erdararik egiten, eta eskolan ikasitako apurra erabiltzeak lotsa ematen zion.

“Sí” eta “no” esaten bazekien, behintzat.

Maistrak erakutsitako esaldi batzuk memoriaz praktikatzen ibili zen Abandoko trenetik etxeko portaleraino.

“No” eta “sí” esaten bazekien, behintzat.

Lehenengo egunean arin bukatu zituen Gurtubaytarren etxeko lanak, harrikoa, sukaldea, komunak. Baina oraindik ez zenez lanordua bukatu, ordubete itxaron behar izan zuen. Kuxkuxeatuko luke klase horretako etxe baten intimitatea. Denbora sobera zuen. Baina amaren hitzek...

“Buruko orratz bat bez, gero, e!”.

Tarte labur bat egon zen leihotik begira, sukaldeko metro karratuetan bueltaka, baina ezin izan zion tentazioari eutsi. Korridorean sartu zen.

Bere begiekin ikusi nahi zituen logelak, komuneko kaxoiak, alabaren armairua... dena.

Isabel eta Fernandoren gelan sartu zen lehenengo. Kuxinez betetako ohe zabal baten gainean egurrezko gurutze katolikoa eta familiako hiruren erretratua zeuden eskegita. Aitak trajea zeraman eta Espainiako banderadun pin txiki bat txaketaren eskuineko hegalean, amak zetazko alkandora puntudun bat eta alabak parpailadun soineko zuri eta perlazko belarritakoak.

“Familia Gurtubay. A 12 de octubre de 1936” zetorren idatzita azpian.

Gero alabaren logelako armairua ireki zuen. Perfume usaina zerion. Arropen artean ibili zen pertxak pasatzen. Bilboko neskek janzten zituzten soineko ederrez eta gona loredunez beteta zegoen, dena ondo plantxatuta, ondo tolestuta. Hor zegoen koadroko soineko zuri hanpatua ere bai. Errotan ez zuten armairurik, ahizpa guztientzako arropa gordetzeko egurrezko kutxa zahar bat zuten. Heze eta egur usaina zerion kutxa hari, eta trapu zahar haiei ere. Jantzita zeraman alkandora usaindu zuen.

Kea, sagarrak, irina.

Egurra, tomateak, esnea.

Komunean sartu zen, ispiluan bere isla pobre arrotza. Ispiluan bere isla kolore hotza. Konketaaren azpiko kaxoi bat ireki eta koadroko belarritakoak topatu zituen. Inpultsuz eta intuizioz, perlak gorde zituen amantaleko poltsikoan.

Sukaldeko aulki batean eserita itxaron zituen geratzen zitzaizkion hiru ordu laurdenak. Loak hartu zuen mahai gainean.

- ¿Has fregado los platos? – Isabelen ahotsa bat-batean. Sustoz esnatu zen Domin.
- Sí – ahots afonikoz, izu, burumakur.

Portzelanazko kikara bat apurtu zitzaion harrikoa egin zuenean.

- Ya siento – memoriaz ikasitako esaldietako bat.

Ez zion jaramon handirik egin.

- ¿Y el baño? ¿Está hecho?
- Sí, señora.
- Vale. Puede irse por hoy. ¿Dónde vive usted? – galdetu zion Fernandok.

Erantzunik ez. “No” eta “sí” bakarrik.

- Sus padres son los Aldazabal – esan zion emakumeak gizonari – Los que tienen un molino en Arminza.
- Ah, coño, los republicanos del molino viejo.
- Ya te hablé de la madre, la harinera. La ría les pasa por debajo de casa y tienen vacas en la colina de atrás, para hacer leche. Ahí viven con las siete hijas.
- Joder.

Penaz begiratu zion bikoteak.

- ¿Cómo es tu casa? – galdetu zion emakumeak.

Erantzunik ez. Sí eta no.

- ¿Tu casa... –atzamarrekin etxe bat– ...es un molino, verdad? –besoekin errota bat.
- Sí – perlak uzurtu zituen eskuetan.
- Trae el vestido blanco de Amalia, que le queda pequeño. Está en su cuarto.

Dominek ez zuen apenas ulertzen. Baina soinekoarekin agertu zen Fernando Gurtubay korridoretik. Komunean probatu zuen. Eta jantzita irten zen etxetik treneraino. Geltokian perlak ere jantzi zituen. Horrela zeharkatu zuen *granbia* osoa, horrela egin zuen trenean Bilbotik Plentziarainoko tartea.

Gurasoen lagunak eta herriko langileak goitik behera begiratzen zioten. Jose Miguelekin egin zuen topo azken bagoian.

- Ze guapa zauzen holan.

Plentziako geltokian jaitsi bezain laster, kale kantoian kendu zuen soinekoa, bola bat egin eta besapean gorde zuen. Perlak oinetakoetan sartu zituen, behatz potoloen artean. Oinez, hala moduz, egin zuen errotarako bidea erreka ertzetik.

Iluntzerako heldu zen. Ama aurkitu zuen sukaldean kortina artean leihotik begira. Mahaia jarrita, oilasko zopak erdi hasita eta bero oraindik, koilarak plateretan, serbiletak zikin, baina ahizpak eta aita ez zeuden han.

- Gora! –irakurri zion amari ezpainetan, erakuslearekin ganbarako eskailerak seinalatzen zituela.

Beldurrak haserre forma du batzuetan.

Soinekoa besapean ezkutatuta igo zituen eskailerak. Sei ahizpak aurkitu zituen ganbarako izkina batean, esne marmita, sagar eta gari saski artean gordeta.

- Guardia zibilek dauz solon. Aita dau erdaraz. Amak esan dosku hemen ostuteko.

Tarte batera denek hartu zuten lo, bata bestearen gainean. Goizaldeko ordu biak pasatxo izango ziren aitaren burua agertu zenean ganbarako ate-zuloan.

- Bajar podéis.

Ahizpa nagusienek elkarri begiratu zioten izu eta duda imintzioarekin. Aitak erdaraz beste bat zen. Ahots lodiagoa zuen, tonu dentsuagoa. Alaba guztiak jaitsi ziren banan-banan eskaileretan behera.

Domin azkena.

Soineko zuria leiho ondoko irin zaku batean gorde zuen. Zapatak erantsi eta perlak bi sagarren zurtoin zulotan sartu zituen inork topa ez zitzan, eta behera jaitsi zen.

1996ko abenduak 31

Mirenek ilea moztu nahi zuela erabaki zuen The Doorsen modura. Jim Morrisonen presentzia imitatu, Vulpessen jarrera, Hertzainaken karisma, Itoizen egonarria.

Herrian jendea hiltzen ari zen. Supermerkatu atarietan eta haurren parkeetan etzanda agertzen ziren yonkiak eguneko edozein ordutan. Hilda edo lo, gauza bera zen. Paradisua edo infernua, gauza bera zen.

Horiei ez zitzaien mundua interesatzen. Orduak egon zitezkeen espaloian botata, begiak itxita edo lurrari begira. Eguna gainetik pasatzen zitzaien traktore baten gisan eta berdin zitzaien. Aitaren hileta edo alabaren gaixotasuna. Berdin zitzaien. Bera ez zen horrelakoa. Berak bizitza maite zuen; maite zuen Armintzako portuko puntaraino ibiltzea, maite zuen negu goizetako ihintza, Bordeleko *boulangeries*etako ogia, udaberriko eguzkia, iluntzeko lurruna eta alga usaina, walkmanean *People are strange* entzutea.

Jende horrek ez zuen bizitza maite.

Ana Gamiz ere yonkia zen. Ez zen BUPeko ikaslerik onena, ez zen ederrena, baina zerbait zeukan; denek zekiten hori. Zoramen puntu bat, ego eta umiltasun dosi bera, inteligentzia ez akademiko baina naturala, intuizio primitibo bat, energia ahaltsu bat. Mutil denak zeuzkan atzetik. Dena inguruan dantzan jartzen zuen. Botere hori zeukan. Orain yonkia zen.

Mirenek ere sentitu zuen indar hori. Berari eman zion lehen musu nerabea. Maitemindu ere egin zen. Atzetik ibili zitzaion BUP eta unibertsitate arteko udan. Eta osteko udazkenean, neguan, udaberrian, eta berriro udan, udazkenean, neguan, udaberrian, eta hurrengo udan. Nola edo hala mutil olde haren artean gailendu nahian. Musu batzuk izan ziren. Gero gau bat. Baina Anak ez zuen norabiderik, zoriontsu bezain zorigaiztokoa zen. Bere agerraldi guztiak epiko bezain tragikoak ziren. *Boomeran* bat. Kontzertuetako publiko artean galtzen zen. Laztan bat aurpegian, atximur bat ipurdian eta jendarteak irensten zuen.

Musu batzuk izan ziren. Gero gau bat. Gero ezer ez.

Ana desagertu egin zen eta Miren unibertsitateko kontaktu baten bitartez sartu zen erakunde armatuan laguntzaile. Soziologia ikasketak utzi eta ETAkide batzuei aterpe eman zien erroto ganbaran hilabete batzuetan zehar. Gero Baionan bizi izan zen sei hilabetez, eta erbestean beste hiru urtez. Anaz ahaztu zen ordurako. Oroitzapen lauso bat, hodei bat memorian.

Exiliotik bueltan, 1996ko Urte zahar goizean itzuli zen errotoara.

Adreiluzko etxebizitza berriak eraiki zituzten erreken bi ertzetara, garabiz beteta zegoen auzoa. Euren ere bota nahi zuten, ortua desjabetu zioten amari ja. Jakinarazpen ofizial bat jaso zuen Dominek Udaletik, etxea inguratzen zuen lursailean, erreken bazterrera hiru etxebizitza bloke altxatuko zituztela adierazten. Ez zion kasu handirik egin. Baina gutxira beste karta bat iritsi zitzaion Aldunditik, hirigintza plana onartu zela eta lanak udazkenean hasiko zirela berresten. Ez zuen alegaziorik aurkeztu, ez zen prozesu judizialean sartu. Ez zuen ezer esan. Ez zen borrokatu. Alaba erbestean zuen. Makinak sartu ziren terrenora. Zementua bota zuten letxuga, tomate eta piperretara. Domin hil zen. Zazpi solairuko hiru eraikin altu egin ziren etxe zaharraren inguruan. Errepide nazionala eraiki zuten errotaren gaineko bidexkan. Jende gaztea etorri zen auzora, zarata, kotxeak, droga, eskola berri bat ere egin zuten nazionalaren beste aldean.

Horrela, etxeak txabola anakroniko bat zirudien.

Miren errotara itzuli zen egunean bi yonki eta haur bat aurkitu zituen etxeko atarian jarrita. Nazional bazterretik oinez iritsiko ziren bertaraino. Emakumeak gizonaren sorbaldan erorita zuen burua eta esku ahurra gora begira, eskale. Burua altxatu eta begietara begiratu zion Mireni. Baina begirada galdu bat.

– Berrehun pezeta?

Urdailean sentitu zuen dena: *dejavu* bat, izua eta pena.
Eztarrian beste guztia: deserria, denbora eta bizia.

Ana zen.

Mirenek ez zuen erantzun. Begiratu ere ez kasik. Susto arraro bat, akordu nerabe bat, min zahar bat.

– Berrehun pezeta? – errepikatu zion Anak.

Ezer entzun izan ez balu bezala, giltzak atera eta sarrailan sartu zituen. Indartuta zegoen, sartzen saiatu ziren, kirtena ere erdi zintzilik. Sukaldeko mahai gainean topatu zituen Aldundiko hiru gutun azal. Hirurak ireki gabe. Baina etxea hutsik zegoen ja. Ama abenduaren 3an hil zen eta Miren ez zen hiletara iritsi.

Ez zen hiletara iritsi. Halako aizkorakada bat sentitu zuen. Halako suge batek hartu zion barrua; hain bortitz, non etxe atarira irten zen berriro. Haurra altzoan hartu zuen, eta Anari ere altxatzen lagundu zion. Etxera sartu zituen biak. Sorbaldan jarri zizkion eskuak Anak Mireni.

– Akordaten zara, Mirentxu?

- Zelan ez naz akordako?

Umea Dominen gela hutsean utzi zuten lo. Ardo botila bat ireki zuen Mirenek, gero beste bat, afaria prestatu zion eta ordu txikietara arte egon ziren elkar ikusi gabeko hamabi urteak errepasatzen. Hiru ardo botila eta bi zigarro pakete. Beste dena, ganbaran gertatu zen.

Sagar saski zaharrez, esne-marmitaz eta irin zakuz beteta zegoen. Koltxoi zahar bat, ikastolako apunteak eta unibertsitate garaiko radiokasetea zeuden oraindik. Dena utzitako toki berean. Hara gora ez zen inor igotzen. The Doorsen *Strange Days* zegoen sartuta. Baionara ihes egin baino lehen entzuten ibili zena, hor geratu zen hori ere bai, Dominek ez zuen kasetea inoiz aldatu. Akaso ez zuen hiru urtetan musikarik entzun.

Koltxoian etzan ziren eta han izan zen dena.

- Gure dozu?

Territorio zabal bat, amapola bat urdailean, eskolarik ez bizkarrean. Egun arraroak, garaiak, aroak. Gauerdiko ilargira bidaia bat, sagarrak, sagarretako arrak, amaren marmarrak, marrak, istorio zaharrak, zezen espainolen adarrak. Loreak, jende arraroa, uneak, aroak. *People are strange*. Aurpegi arrotzak, gerraosteko hotza, tiro hotsak. Ezer ez da betiko, ezerk ez du irauten, baina nire begiek ikusi zaituzte, zure begiek ikusi naute. *My eyes have seen you* eta maita nazazu bi aldiz, *Love mi two times, baby*. “Nondik gatoz” eta “nora goaz” arteko bertigoan bizi gara. Geureak dira presioak eta isobarak. Hemen goian gertatu dira, hemen daude oraindik orbanak, izarak, ikarak, kikarak, otzarak. Enara amak eta datozen txitak udaran. Ustelak lurpera, bizitza da aundiena. Hau da eszena. Koltxoi batean edena. Eman eta hartu plazera. Ostu bandera, gorde txinbera, jaitsi nire lepo xumera, ni zure litosferan. Eta sh. Musikaren amaiera. *The end. This is the end*.

The music's over, han bukatu zen dena.

Ganbarako koltxoi gainean hasi eta bukatu zen paradisua.

Ganbarako koltxoi gainean bukatu eta hasi zen infernua.

2046ko urtarrilak 1

1

Arrazoia:

Etxebizitza-aktiboaren berreskuratze automatizatua

Egoera:

Errotaetxe 12 (Armintza, Bizkaia) eraikinean AA bidezko etxegabetze-agindua programatuta.

Exekuzio-data:

2046ko urtarrilarena 1a

Materiala:

Sentsore aurreratudun hiru bideo-drone, denbora errealean emisioa desokupazio zentralera.

Mailu hidrauliko bat, bi dumper kamioi inteligente.

Etxegabetze prozedura integratutako bi robot humanoide.

Aginduak:

Etxebizitza hustu. Epea: 24 ordu

Giza presentzia identifikatzen bada, AA bidezko etxegabetze araudiaren azalpena eta kanporatze eskaera erreproduzitu

Giza presentziaren ahotsa identifikatzen bada, ahozko txatbota martxan jarri

Erresistentzia identifikatzen bada, robot humanoideen esku hartze fisikoa martxan jarri. Sistema esponentziala, agindua bete arte.

18/ 2042 Legearen azalpena eta etxea uzteko eskaera formala
Txatbotaren aktibazioa. Mehatxu berbala
Mugimendu aktibazioa. Esku-hartze fisikoa
Giza presentziaren kanporatzea

Objektu sentimentalak eta ondare historikoa identifikatu, kopia sortu eta digitalizatu

Etxegabetzearen memoria eta eraisketaren erregistroa:

2046ko urtarrilaren 1ean, goizeko 9:00etan, Errotaetxe 12 errota-baserrian Adimen Artifizial bidezko etxegabetzea gauzatu zen. 25/26 Hirigintza Planaren baitan kokatzen zena.

Giza presentzia bakarra antzeman zen eraikinean. Identifikazio biometrikoaren arabera Itziar Aldazabal zen bizilaguna, 52 urteko emakumea. Errolda datu-baseari jarraiki, subjektuak 50 urte zeramatzan eraikinean bizitzen.

09:00:14an, 18/2042 Legearen azalpena eta etxea uzteko eskaera formala erreproduzitu ziren. Subjektuak ez zuen agindua onartu. Ahots-analisian urduritasuna, negarra eta estres-maila altuak detektatu ziren.

09:03:22an, ahozko txatbota aktibatu zen. Sistemak hamabi minutuz mantendu zuen elkarrizketa, bizilagunak ahoz erantzuten zion neurrian. Subjektuak adierazi zuen errota-baserria bere familiaren azken ondarea zela, eta bertan bizi izan zela bere gurasoekin Miren Aldazabal eta Ana Gamizekin.

09:15:41ean, subjektuak etxebizitza uzteari uko egin zion. Erresistentzia-maila 2 gisa sailkatu zen. Robot humanoideen mugimendu-protokoloa aktibatu zen.

Itziar Aldazabal 2046ko urtarrilaren 1ean etxegabetu zuten. Etxegabetze sistema inteligentea batzuetan horrela agertzen hasi zen etxeetan. Berdin zuen egunak. Legearen agindua iritsi eta sistemak onartu bezain laster egunean bertan kanporatzen zituen bizilagunak.

Goizean sartu ziren. Dronen zaratak eta bozgorailuko mezuek esnatu zuten. Bakarrik bizi zen. Atea bota zuten, errotatik ateratzeko mezuari ezetz esan zion hasieran. Baina robotekin ezin zen negoziatu. Etxetik bota baino lehen ordu erdi eman zioten behar zuena ateratzeko.

Bere logelara sartu zen lehenengo. Armairuko arropa tolestu barik eta kasik begiratu ere egin gabe sartu zuen maleta batean. Hiru zapata pare. Edozein. Komunetan hortzetako eskuila bat, pasta eta orrazia. Sukaldetik zartagin bat, olio eta ogia.

Sei minutu geratzen zitzaizkion. Ganbarara igo behar zuen. Zerbaiten bila. Ez zekien zer. Fondoan bazekien ez zela beharrezkoa. Fondoan bazekien ganbaran arrasto emozionalak besterik ez zeudela, familia arrunt baten ondare ezdeusa. Baina igo behar zuen halere. Eskailerak igo zituen, bihotza eztarrian, mila usain, mila traste, ordenarik eta logikarik gabe barreiatuak. Norabide eta zentzu gabe hasi zen dena haztatzen.

Gauzak eta erlikiak.
Erlikiak eta gauzak.

Bere umetako sehaska, Lilian (hiru urterekin alaba bezala zaindu zuen *babyborn* bat), Egin periodikoak, mila liburu zahar (Krudwig, *Vasconia*. Guevara *La revolución de guerrillas*. Beauvoir. *El segundo sexo*. Sarrionandia. *Atabala eta euria*.) esne-marmidak, zumitzezko saski batean sagar ustel arrastoak eta bi perla belarritako, irin zakuak, soineko zuri zahar bat, heroina xiringak, amaren Sony radiokasete bat, bere lehenengo Mac-a, LHko titulua, EGAKo ziurtagiria, pasaporte iraungi bat, nerabegaroko lagun baten deklarazio gutun bat, ama bainatzeko erabiltzen zuen gurpildun aulkia, ume-pardelak, heldu-pardelak, bere lehenengo poema liburuaren zirriborroa, Gradu Amaierako Lana, amantal zahar bat, buruko orratzak.

Ausaz hartu zituen gauzak.
Ausaz gorde zituen erlikiak.

10:11:07an, esku-hartze fisikoa. Ez zen lesio larririk erregistratu. Subjektua eraikinetik kanporatua izan zen.

10:19:34an, etxebizitzaren kanpoaldea eta barrualdea eskaneatu ziren.

Armintzako Errota, 1739-2046

Balore historiko-emozionalak digitalizatu eta Memoria Ondarearen Datu Basean kopiatu ziren. Ez zen objektu fisikorik kontserbatu, eraikina suntsitu zen.